

Euskadiko gazteen % 96,5ek sakelako telefonoa daukate

Interneten sartzea eta sakelako telefonoa edukitzea oso zabaldua daude gazteen artean. Izan ere, Euskadiko gazteen % 87,6 Interneten sar daitezke; horietatik % 99,5ek erabiltzen dute; eta horietako erdiak baino gehiagok egunero erabili ere.

Euskadiko gazteak 2004 txostenean 15 eta 29 urte bitarteko gazteek astialdian egiten dituzten jarduerak jasotzen dira. Jarduera nagusien artean familiarekin egotea (% 87), telebista ikustea (% 84), musika entzutea (% 78) eta telefonoz mintzatzea eta e-mailak eta sakelakotik mezuak bidaltzea daude (% 75).


Datu hauek aditzera ematen dute informazio eta komunikazio teknologiek presentzia esanguratsua dutela EAEko gazteen aisian.

Eustatek familiei informazioaren gizarteari buruz 2007an egindako inkestaren emaitzen arabera, Euskadiko gazteak gero eta ohituago daude informazio eta komunikazio teknologekin ibiltzera.

INTERNETERAKO SARBIDEA

Familiei informazioaren gizarteari buruz eginiko inkestaren 2007ko datuetan ageri denez, 15 eta 29 urte bitarteko gazteen % 87,6k Interneterako sarbidea daukate. 2003ko datuekin alderatuta, Interneterako sarbidea duten 15 eta 29 urte bitarteko biztanle gazteen proportzioa areagotu da, % 18, hain zuzen ere.

**Interneterako sarbidea daukaten 15 eta 29 urte bitarteko gazteak (%)
EAE. 2003-2007**



Iturria: Eustat. Informazioaren gizarteari buruzko inkesta (familiak)

Datuak generoaren arabera sailkatzen direnean Interneterako sarbideari dagokionez dauden aldeak oso apalak dira; izan ere, nesken % 89,8k eta mutilen % 85,8k Internetera sartzeko modua daukate.

Adin-taldeen araberako sailkapenari esker, jakin dezakegu adinean gora egin ahala, gazteek aukera gehiago dituztela Internetera sartzeko. Izatez, Interneterako sarbidea daukaten gazteetatik, % 40,6 25 eta 29 urte bitartekoak dira; % 30,5 20 eta 24 urte bitartekoak; eta % 28,8 15 eta 19 urte bitartekoak.

INTERNETEN ERABILERA

Internetera sartzerik duten 15 eta 29 urte bitarteko gazteen % 99,5ek Internet erabili egiten dute, hau da, sarbidea duten gazte ia guztiek. % 0,6k bakarrik diote sarbidea eduki arren, ez dutela Internet erabiltzen.

2003ko datuekin alderatuta, Interneten erabilera igo egin da 15 eta 29 urte bitarteko Interneterako sarbidedun gazteen artean (% 1,4). Alabaina, igoera ez da oso nabarmena izan, Interneten erabilera 2003an jada altua baitzen (% 98,1).

Generoari erreparatuta, Interneten sar daitezkeen bai ia neska guztiek bai ia mutil guztiek erabili egiten dutela konproba daiteke (% 99,5 eta % 99,4, hurrenez hurren).


Interneterako sarbideari buruzko datuekin gertatzen den moduan, adin-taldeen analisiak aditzera ematen du zenbat eta nagusiago, erabilera orduan eta handiagoa dela: erabiltzaile gazteen % 40,4 25 eta 29 urte bitartekoak dira; % 30,7 20 eta 24 urte bitartekoak; eta % 28,9 15 eta 19 urte bitartekoak.

INTERNETEN SARTZEKO MAIZTASUNA

15 eta 29 urte bitarteko Internet erabiltzaile gazteetatik, erdiak baino gehiagok egunero erabiltzen dute; % 34,4k astero, baina ez egunero; % 5,6k hilean noizbait; eta % 0,6k hilabete guztietan ez.

2003ko datuekin konparatuz, gora egin du egunero Internet darabiltenen gazte taldeak, eta behera egin dute gainerako maiztasunek.

Internet darabilten 15 eta 29 urte bitarteko gazteak, erabileraren maiztasunaren arabera (%)
EAE. 2003-2007




Iturria: Eustat. Informazioaren gizarteari buruzko inkesta (familiak)

Generoa aintzat harturik, neskak hein handiagoan aritzen dira Interneten hilean noizean behin edo astero, baina ez egunero. Mutilek Interneten egunero sartzeko joera handiagoa dute.

SAKELAKO TELEFONOA

Gazteen % 96,5ek sakelako telefonoa daukate. 2003ko datuekiko alderaketan ikus daitekeenez, mugikorra daukatenen ehunekoak gora egin du.

**Sakelako telefonoa daukaten 15 eta 29 urte bitarteko gazteak (%)
EAE. 2003-2007**



Iturria: Eustat. Informazioaren gizarteari buruzko inkesta (familiak)

Sexuen arabera, neskek hein handiagoan daukate mugikorra mutilek baino (% 97,3 eta % 95,9, hurrenez hurren).

Adin-taldee dagokienez, sakelako telefonoa daukaten gazteen % 25,8k 15 eta 19 urte bitarteko adina dute; % 30,4k 20 eta 24 urte bitartekoa; eta, azkenik, % 43,8k 25 eta 29 urte bitartekoa.

Lotutako datuen kontsulta:

Euskadiko gazteek informazio eta komunikazio teknologekin duten harremanari buruzko adierazle estatistikoak

Lotutako estekak:

Gazteen Euskal Behatokiaren adierazle estatistikoaren sistema